



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Gorlizko Udala

Gorlizko Udalean Arkitekto Tekniko lanpostu bat betetzeko deialdia eta oinarriak.

Gorlizko Udalaren erabakia, beronen bidez, Gorlizko Udaleko funtzionarioen plantillan, oposizio-lehiaketa bidez, Arkitekto Tekniko lanpostu bat betetzeko, hautaketa prozesuaren oinarriak eta deialdia onetsi dira.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko maiatzaren 16an egindako bileran, Gorlizko Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen Arkitekto Tekniko lanpostu bat (Administrazio Orokorreko Eskalan), oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian eta lan-poltsa eratuz, betetzeko berariazko oinarriak onestea eta bidezko deialdia egitea erabaki zuen.

Gorlizen, 2019ko maiatzaren 28an. — Alkatea, Arantza Etxebarria Villabeitia



**GORLIZKO UDALEAN ARKITEKTO TEKNIKO LANPOSTUA LEHIAKETA-OPOSIZIOAREN
BITARTEZ KARRERAKO FUNTZIONARIOAREKIN BETETZEKO
HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIRAKO OINARRIAK**

Lehena. — Deialdiaren helburua

Oinarri hauen helburua da funtzionario izaerako arkitekto tekniko plaza bat oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko deialdia arautzea. Lanpostu horren ezaugarriak dira: Administrazio Orokorreko Eskala, Azpieskala Teknikoa, erdiko klasea, arkitekto tekniko maila, A sailkapen-taldea, A2 azpitaldea, 5/2015 legintzako Errege Dekretua Urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duenaren 76. artikuluan ezarritakoenekoak, hirugarren xedapen iragankorrekin lotuta.

Hutsik dagoen lanpostu honek 3. Hizkuntza-eskaintza ezarrita du, eta Gorkiz udalaren 2018ko Lan Eskaintza Publikoan, 50 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, 2018ko martxoko 23koan, sartuta dago.

Prozesu guztia gainditzeko duten hautagaiak, nahiz eta lanposturako hautatuak ez izan, lan-poltsan sartuko dira, hautaketa-prozesuan lortutako puntuen ordenari jarraiki, postu berdinetan edo antzekoetan langile ez-iraunkorren beharrak betetzeko.

Bigarrena. — Zereginak

Lanpostuaren funtzioak, Udalak 2016ko maiatzaren 31ko Osoko Bilkuran Lanpostuen Balorazioaren arabera, hurrengoak dira:

- a) Herri lanen kudeaketa:
 - Zerbitzu eta herri lanen plangintza eta jarraipena.
 - Lizentzia, herri lanak eta salaketan ikuskaritza.
 - Eraikuntzen ekintzen egitea eta lizentziak eskaintzeko gaitasunaren ikuskaritza.
 - Lantzen diren zerbitzuek jasotako fakturen ikuskaritza eta kontrola egitea.
 - Segurtasun publikoari eragiten dieten instalazio zein eraikuntzen arrisku pertajea.
- b) Txostenen eraketa:
 - Hirigintza planak eta eraikuntza berriak egiteko obren lizentziak jasotzeko txostenen idazketa eta eraketa.
 - Herri azpiegituren inguruko txostenak egitea.
 - Asistentzia teknikoa, horniketak, zerbitzuak, lan obren kontratazioak egiteko aurrepreinkipzioak egiteko txostenen eraketa.
- c) Informazio teknioa:
 - Herri lan nagusi zein txikiagoen lizentzien inguruko informazioa ematea.
 - Publikoari zuzendutako harreta eta kudeaketa lantzea.
 - Brigada lanen kontrola bermatzea.
 - Beregain dituen langileen lanen ikuskatzea eta kontrola ematea.
 - Obrak zein edozein erako zerbitzuak egiteko beharrezkoa den materialaren erosketa egitea.
 - Zerbitzu eta obren aurrekontuak egitea.
 - Herrian dauden edozein instalazio municipalen proiektuekiko elkarlana eta proiektu hauen eraketan parte hartzea.
 - Herrian dauden eraikinen mantenimendu lanak kudeatzea eta lan hauen koordinazio lana eramatea.
- d) Fakturaketarekin oneritza:
- e) Bere lanaren baitan diren funtzioen kudeaketarekin lotuta, bere agintariek agindutako ekintzak garatzeko bermea izan behar du, nahiz eta zeharkako jarduerak izan.

**Hirugarrena.— Hautagaien baldintzak eta eskakizunak**

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko ezinbestekoa da:

- a) Espainiako herritartasuna izatea, alde batera utzi gabe 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 57. artikuluan xedatutakoa.
- b) 16 urte beteak izatea eta derrigorrezko erretirorako adinetik gorakoa ez izatea.
- c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen Arkitekto Teknikoaren titulu akademikoa izatea.
- d) Gaitasuna: zereginak garatzeko gaitasun funtzionala izatea; hala, jarrera psikofisiko egokia behar da eta gaitasunak edo desgaitasunak lan-poltsa egituratzeari begira plaza dagokion lanpostuaren funtzio eta zereginak ohiz burutzeko bategarria izan beharko du. Nolanahi ere, hori Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute.
- e) Gaikuntza: edozein Administrazio Publiko edo Konstituzio eta Erakunde Autonomoetako Estatutu Erakunderen zerbitzutik ez zaio atera diziplina-espedientearen bitartez eta funtzionarioen gorputz edo eskalen barruan ez du lege-ebazpenez enplegu edo kargu publikoetarako desgaikuntza absolutu edo berezirik.
- f) Administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunaren arloan indarreko arautegiarekin bat, ezintasun edo bateraezintasunaren legezko arrazoiren batean ez da murgildua egongo. Dena den, jada kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenen kasuan, legezko arauak aipatzen duten aukera-eskubidea erabil dezake.
- g) Euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea duela egiaztatuko du, plaza betetzeko ezinbestekoa baita, 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, euskararen ezagutza ziurtatzeko tituluak eta ziurtagiriak baliozkotu eta hizkuntzetarako Erreferentziazko Europar Esparru Erkidegoko mailekin berdintzen dituenak, eta 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskaraz hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak egiaztatzeaz salbuesten duenak, xedatutakoaren babesean.

Laugarrena.— Eskabideak

Eskaerak Gorlizko Udaleko Erregistroan, 9:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralerara, emango den eredu ofizial eta arautura egokituko dira. Eredua Udalaren web orrian eskuragarri egongo da ere. (<http://www.gorliz.eu/>).

Lehiaketa-oposizioan onartzea eskatuz eskabideak Gorliz Udaleko alkate/udalburuari zuzenduko zaizkio eta baztertuak ez izateko hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Hautagaiek deialdiko bigarren oinarrian eskaturiko baldintza guztiak betetzen ditzutela agerrarazi behar dute, betiere eskabideak aurkezteko epea bukatzen den datari dagokienez.
- b) Lehiaketaren fasean baloratu behar diren merezimenduei buruzko datuak azalduko dituzte. Bakarrik hartuko dira aintzat eskabideak aurkezteko azken egunera arte adierazi eta ziurtatu diren merezimenduak. Eskabidean azal dutako merezimenduak dokumentu original edo fotokopia konpultsatuen bitartez ziurtatuko dira. Ildo horri jarraiki, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, merezimenduen ziurtapena zuzentzea ez da onartuko.
- c) Eskabidearekin batera, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:
 - NANaren fotokopia edo nortasuna eta herritartasuna egiaztatzen duen agiria, hautagaiak Europar Erkidegoko Estatu batekoak badira.
 - Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua.
 - Curriculum Vitae.



- Eskameran adierazitako merituak egiaztatzen dituzten dokumentuak, lehiaketaren fasean ebaluatzeko.
- Hautagaiek eskatutako hizkuntza eskakizuna badute eta, ondorioz, euskarako proba egitez salbuetsiak badaude, eskabidean aipatuko dute eta horrekin batera ziurtapen-dokumentu originala edo fotokopia konpultsatua aurkeztuko dute.

- d) Hautagaiek eskabidean idatziz jasoa utziko dute oposizioaren fasean ariketak egiteko erabiliko duten Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala.

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztuko dira Gorkiz Udalaren erregistro nagusian gehienez hogeita (20) egun baliodunen epean, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Era berean, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aipaturiko administrazio publikoen erregistroetan aurkeztu ahal izango dira. Gorkizko Udaleko alkate/udalburuari zuzenduko zaizkio, eta dagokion funtzionarioak datatu eta zigilatu beharko ditu eskaerak aurkezteko epearen barruan.

Ikusitako balizko izatezko akatsak uneoro konpondu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta. Ez dira izatezko akatsak izango eskabideetan merezimenduak ez alegatzea edo horien ziurtapen-dokumentuak horri ez eranstea. Interesdunak gai horri eutsiz ahazteren bat antzematen badu, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte konpon dezake. Epea amaitutakoan ez da zuzenketarik onartuko. Hori guztia egingo da, gero euskara-maila egiaztatzeari buruz esango dena baztertu gabe.

Bosgarrena. — Izangaien onarpena

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udaltzako Alkate-Lehendakariak onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, bazterketaren arrazoiak adieraziko ditu. Hala badagokio, zerrenda hori Gorkizko Udaleko iragarki-oholean argitaratuko da, bai eta udaleko web orrian ere.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, esandako behin-behineko zerrenda horretan baztertutzat jotzen diren izangaiei hamar (10) egun balioduneko epea emango zaie beren kanporaketa eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko, zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Aurkeztutako erreklamazioak eta eskaerak onartuko edo baztertuko dira hitzarmen-organismoak hautatutako prozesuan onartutakoan eta baztertutako zerrenda amaitzen duen akordioan. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Gorkizko Udaleko Iragarki-Taulan eta Udalaren web gunean argitaratuko da.

Seigarrena. — Epaimahaia

Deialdiko hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzailea eratua izango da bat etorritik urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Testu Bateginaren 60. artikularekin, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuko 4. artikularekin, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikularekin.

Epaimahaiak izango ditu: lehendakari bat, idazkari bat, eta alkate-presidenteak erabakitzen dituen bokalak. Epaimahaiakideen kopurua ezingo da izan inolaz ere bost baino gutxiago. Epaimahaiko kide izango da HAAE Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari bat.

HAAE izendatutako lagun batek parte hartuko du epaimahai kalifikatzailean deialdian eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetarako.

Gutxienez epaimahaiko kideen erdiek izan beharko dute sartzeko eskatzen den jakintza-arlo bereko titulazio bat, eta denek izan behar dute maila akademiko berdina edo handiagoa. Nolanahi ere, epaimahaietan orobat egongo da Herri Arduralaritzaren Euskal



Erakundeak izendatutako ordezkari bat, eta Udaleko ordezkari batzordea sindikalak aukeratutako langileen ordezkari bat.

Ondo justifikatu ezik bere desegokitasuna, epaimahaia edo hautaketa-organo tekniko osatzean oreka bat egongo da gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertzen da noiz eta lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitza gutxienez %40an ordezkaturik baitago; gainera koetan, bi sexuak ordezkaturik daudenean.

Epaimahaiak posible izango dute aholkulariak baliatzea hautaketa-prozesuko proba guztietarako nahiz batzuetarako, eta aholkulari horiek beren espezialitate teknikoak aplikatzera mugatuko dira.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hautaketa-prozesutik onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera, behin Alkatetza-Lehendakariak izendatuak izan ondoren.

Epaimahaiaren jardunak uneoro beteko du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, gutxienez hiru (3) kide, titular nahiz ordezkari, azaldu ezik, kopuru horretan sartu gabe idazkari diharduen. Akordioak onartuko dira bertaratutako epaimahaiakide gehienek aldeko botoaren bidez, eta berdinketa gertatu ezkerreko, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du. Epaimahaiak kide guztiek izango dute hitza eta botoa.

Zazpigarrena. — Hautaketa prozesua

Lehenengo ariketa egiteko deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, izangaien onartu-baztertuen zerrendarekin batera, eta epaimahai kalifikatzaileko kideen izendapenarekin, Gorteko Udalaren iragarki-oholean eta webgunean, zehaztuz azterketa egiteko eguna, ordua eta lekua.

Ondorengo ariketak Kalifikazio Epaimahaiak iragarriko ditu Gorteko Udalaren iragarki-oholean eta webgunean.

Hautagaiei deialdi bakarra egingo zaie.

Izangaiek, beren nortasuna egiaztatzeko, Estatuko Nortasun Agiria aldean eraman da joan beharko dute ariketak egitera, eta epaimahaiak noiznahi eskatu ahal izango die dokumentu hori. ENA nahiz nortasuna egiaztatzen duen beste edozein dokumentu aurkezten ez bada, izangaia hautapen-prozesutik kanporatua izango da automatikoki.

Oposizio-faseak hiru ariketa izango ditu: Teorikoa, praktikoa eta hizkuntza ezagutzak egiaztatzekoa.

Lehiaketa fasean, oposizio fasea gainditzeko izangaiei, Epaimahaiak bederatzi-garren oinarrian agertzen diren merituak baloratuko zaizkie, betiere baldin meritu horiek behar den moduan alegatu izan badira.

Puntuazioan gertatzen diren berdinketak irizpide hauen arabera ebatziko dira, lehen-tasun-hurrenkeraren arabera:

- Lehen ariketako atal praktikoan puntu gehiago lortu izana.
- Lehen ariketako atal teorikoan puntu gehiago lortu izana.
- Berdinketa hausten ez bada, lehentasuna emango zaie emakumeei, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluari jarraituz.

Zortzigarrena. — Oposizioa

Epaimahai kalifikatzaileak egoki irizten badiu, erabaki dezake proba bat baino gehiago egitea egun berean, eta kasu horretan bakarrik baloratuko dira aurreko frogak gainditu dutenen ariketak.

Izangaiek Epaimahaiak deialdian zehaztutako leku-egun-orduetan agertzen ez badira, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.



Ariketa baztertzaile bakoitza amaitu ondoren Epaimahai Kalifikatzaileak zerrenda bat argitaratuko du Gorteko Udaleko iragarki-oholean eta udalaren web orrian, gainditu duten hautagaien izenekin.

Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak behar diren neurriak hartuko ditu bermatzeko oposizio faseko ariketa idatzien edukia konfidentziala dela, eta ariketa horiek zuzenduak direla izangaien nortasuna jakin gabe.

Lehenengo ariketa: Teorikoa

Epaimahaiak ezartzen duen denboran, Oinarri hauen Eranskinean ageri den gai-zerrendaren inguruko galderei erantzun beharko zaie.

Kalifikazio-epaimahaiaren esku geratzen da proba hau egiteko prozedura zein izango den zehaztea (test motako galdetegia, gai bat edo batzuk garatzea, etab.), eta, hala balegokio, okerreko erantzunak zigortzea.

Lehenengoko ariketaren lehenbiziko atal honetan gehienez 30 puntu jaso ahal izango dira, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira prozesuarekin jarraitzeko.

Bigarren ariketa: Praktikoa

Atal honetako lana izango da askatzea Epaimahai Kalifikatzaileak jartzen dituen egoerak edo kasu praktikoak, zerikusia dutenak Oinarri hauen Eranskineko gaien edukiekin edo lanpostuaren zereginekin. Lehenengo ariketaren bigarren atal honetan gehienez 30 puntu jaso ahal izango dira, eta prozesuarekin jarraitzeko 20 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hirugarren ariketa

Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko. Derrigorrezkoa eta baztertzailea izango guztientzat.

Ez dute euskarazko ariketa egin behar izango probak hasi aurretik 3. hizkuntza-eskakizuna, edo gehiago, badutela frogatzen duen dokumentua epaimahaiari aurkeztean diotenenek.

Euskararen ezagutza egiaztatzeko tituluak baliozkotzeak, bai eta euskarazko ezagutzak hizkuntza arloko erreferentziazko Europako Marko Erkideko mailekin parekatzea, jasota dago azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan, eta baita ere euskaraz egindako ikasketak ofizialak aitortzeko eta euskarazko titulu eta ziurtagiriekin akreditaziotik salbuestekoko apirilaren 3ko 297/2010 Dekretuan.

Ariketa hau «Gai» edo «Ez Gai» kalifikatuko da.

Nolanahi ere, euskararen ezagutza egiaztatzeko ariketa egokitu egingo zaio HAEK hautaketa-prozesuetan hizkuntza-eskakizunen azterketak egiteko ezartzen duen deialdi-egutegiari.

Bederatzigarrena. — Lehiaketa

A) Lan-esperientzia

Esperientzia Arkitekto tekniko gisa edo antzeko lanpostuetan: gehienez 20 puntu, hilean 0,30 puntu. Beheko frakzioek batu egingo dira, baina ez dira kontuan hartuko kopuru horretatik ateratzen diren hilabetetik beherako frakzioak.

Esperientzia baloratzean puntuazioa hainbanatuko da lanaldi ez osoak direnean. Gainera, hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera, jardunaldiaren zati bat puntuagarria bada, baina ez lanaldi osoa, dagokion ziurtagirian zehaztu beharko da, eta kasu horretan ere puntuazioa hainbanatuko da.

Egiaztapena:

Meritu horiek egiaztatuko dira lan egin den enpresek edo zerbitzuak eskainitako administrazioak emandako ziurtagirien bidez, gehi Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren agiriarekin. Ziurtagiri horietan zehaztuko dira bete diren lan guztiak. Egindako lan edo zereginen deskribapenean ez badira jasotzen gutxienez lanpostuari dagozkion funtzio gehienak, Epaimahaiak erabakiko du puntuaziorik eman ala ez.



Langile autonomoen esperientzia horrela ziurtatu behar da.

- Eskaintako posizioa osatzen dituzten funtzio eta zerbitzu nagusien, edo antzeko diren, zerrenda; non adierazi behar da zein izan den posizioa, zenbatekoa, data eta hartzailea, zein publikoa edo pribatua den.

Hartzailea sektore publikoaren erakunderen bat izan denean, organo eskudunak emandako edo baimendutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira zerbitzuak.

Hartzaileak sektore pribatuarena izan denean, honek emandako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiri hau ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, eta, batera, bere esku daukan prestazioaren burutzea egiaztatzen duten dokumentuak. Ziurtagiri hauek, edozein kasutan, emandako zerbitzuen iraupenaren zerrenda izango dute, maiztasuna zehaztuz (adibidez: 7 urte, hileko egun bateko tasa eta 6 ordu horietako bakoitzean).

Ziurtagiri horiek zuzenean Udalari jakinaraziko zaizkio agintari eskudunak.

Zerbitzua edo lana era bereko edo antzekoa dela erabakitzeko, epaimahaiak CPV kodean gain, beste jarduera sailkapen sistemetan oinarritu ahal da; adibidez: Nazio Batuen produktuen eta zerbitzuen kode estandarra (NBPZKE), Produktuen sailkapen nagusia (PSN) edo Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (JESN).

B) Ikastaroak

erakunde publikoek edo itunpekoek emandako eta lanpostuaren berezko zereginekin zerikusia duten ikastaroak, mintegiak eta prestakuntza osagarria. Gehienez ere 10 puntu baloratuko dira, jasotako prestakuntza-ordu bakoitzeko 0,005 puntu (puntu-milako).

Titulazio akademikoak dagokion tituluarekin edo nota-ziurtagiriarekin justifikatuko dira

Prestakuntza-ikastaroak justifikatzeko, bertaratze-ziurtagiria edo bertaratze-diploma eta ikasturteko programa ofiziala erakutsiko dira, derrigorrez adieraziz irakastorduen kopurua.

Hamargarrena. — Epaimahai kalifikatzailearen proposamena

Hautagaien azken kalifikazioa zehazteko, oposizio fasean lortutako puntuak eta lehiaketaren fasean eskuratutakoak batuko dira, eta honek azken puntuen ordena zehaztuko du.

Ariketa bakoitzeko kalifikazioak publikoki jakinaraziko dira, epaimahaiak hauek onartutakoan, eta jakinarazpenenak taulan eta Gorkizko Udalaren webgunean argitaratuko dira. (<http://www.gorkiz.eu/>).

Hiru (3) laneguneko epea emango da Alegazioak egiteko. Gorkizko Udaleko Erregistro Orokorrean idatziz aurkeztuko dira, eta epaimahaiaren presidenteari zuzenduta egon behar dira.

Epaimahaiak alkateari bidaliko dio izendapen proposamena jasotzen duen akta.

Aktak ariketa guztiak gairiditu dituzten hautagai guztien zerrenda eramango du, nahiz eta eskaintzen diren lanpostu baino gehiago izan.

Epaimahaiak deialdia hutsik eman ahal du, aurkeztu diren izangai guztien artean inork ez badu behar den maila erakutsi frogetan.

Hamaikagarrena. — Datu pertsonalak

Izangaien datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira, non izango diren tratatuak hautaketa-prozesua kudeatu ahal izateko. Fitxategi hori Gorkizko Udaleko Idazkari-tza-Kontuhartzaitzak kudeatuko du. Izangaiek eskubidea izango dute datu horiek eskuratu, ezereztu, aurkatu eta zuzentzeko.

Datu pertsonalen tratamendua egingo da Datu Pertsonalak Babesteari buruzko eta Eskubide Digitalen Bermearen gaineko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz.

Era berean, identifikazio-datuak eta izangaien harremanetarako telefono zenbakia beste toki-administrazio batzuei laga ahal izango zaizkie, aldi baterako laneko beharrak asetzeko.

**Hamabigarrena. — *Praktiketako funtzionario izendapena eta praktikaldia***

Alkateak praktiketako funtzionario izendatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako izangaia.

Prestakuntza eta praktiketako aldia sei (12) hilabetekoa izango da.

Epe hori amaitu baino lehen, bere nagusi hurrenak txosten bat egingo du probaldian dagoen funtzionarioaren gainean, eta kontuan hartuko dira bertan langileak erakutsitako lan-gaitasuna eta errendimendu profesionala, ardura eta ekimen zentzua, bai eta lanaren aldera agertu duen interesa ere. Kontuan hartuko da halaber lan-taldean integratzeko erakutsi duen gaitasuna.

Hamairugarrena. — *Izendapena karrerako funtzionario bezala*

Praktikaldia amaitu ondoren, proposatutako izangaia hura gainditzen badu, Gortziko alkateak karrerako funtzionario izendatuko du, eta izendapen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Karrerako funtzionario izendatutako praktiketako funtzionarioa bere karguaren jabe egingo da hamar (10) egun balioduneko epean, bere izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita.

Gortziko alkateak posible du epe hori beste hamar egun luzatzea, arrazoi justifikatuak daudenean. Epe horretan interesatua ez bada azaltzen Udaletxera bere karguaz jabetzeko, eskubide guztiak galduko ditu eta izendapena indargabe geratuko da.

Hamalargarrena. — *Lan-poltsa*

Onartutako izangaiekin lan-poltsa bat sortuko da zeinarekin bete baja, ordezkapen nahiz ustegabeko gertaerak direla gerta daitezkeen langile-beharrak.

Poltsa osatuko da puntuazio altuenetik apalenerako hurrenkeran.

Eskaintako lanpostu bati uko egiteak berekin dakar izangaia itxarote-zerrendatik kanpo uztea, salbu egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- Erditzea, amatasunagatik baja edo pareko egoerak.
- Lanerako Ezintasun Iragankorreko egoera sortzen duen gaixotasuna.
- Lanera joatea eragozten dion hautetsi kargu publiko bat bete beharra.
- Inoren kontura alta emanda egotea beste edozein enpresa edo administrazio publikotan.

Lanposturako hautagaiek eskabidean helbide elektronikoa eta telefono-zenbakia adieraziko dituzte. Lehenik eta behin, udala hautagaiarekin telefonoz harremanetan jartzen saiatuko da. Arrakastarik ez badu, posta elektronikoa bidaliko da. Komunikazio elektronikoa bidali eta 48 orduren buruan pertsonak deialdiari jaramonik egiten ez badio, zerrendako hurrengo pertsonarekin jarriko da harremanetan.

Gainditutakoren batek lan-poltsan sartu nahi ez badu, berariaz uko egin beharko dio eta, horretarako, idazkia bidaliko dio Gortziko Udaleko alkateari.

Lan-poltsa berriaren indarraldia onartzen denetik urte batekoa izango da eta urtero luza daiteke, epemugarik gabe, Alkatetza-Udalburutzak bestelakoa ebazten ez duen bitartean.

Hamabosgarrena. — *Gorabeherak*

Epaimahai kalifikatzailea espresuki gaituta dago sortzen diren zalantzak eta gorabeherak ebazteko eta Lehiaketa-Oposizioa modu egokian gauzatzeko behar diren erabakiak hartzeko, Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian.

Halaber, epaimahaiak eskua izango du bere kabuz ebazteko zalantzak sortzen dituzten kontuak, edo aurreikusi ez direnak.

**Hamaseigarrena. — *Inpugnazioak***

Deialdi hau, bere oinarriak eta hala berarengandik nola Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetik eratortzen diren administrazio-egintza guztiak aurkatu egin ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako modu eta epeetan.

**ARKITEKTO TEKNIKO LANPOSTURAKO GAI-ZERRENDA**

Azterketetako galderen erantzunak eman beharko dira eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean indarrean dagoen legeriaren arabera.

ATAL OROKORRA

1. gaia: Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.
2. gaia: Espainiako Konstituzioa. Estatuaren lurralde-antolaketa: printzipio orokorrak. Toki-administrazioa.
3. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa. Izaera. Euskal Herriaren eskumenak. Euskal Herriaren botereak.
4. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Arteko Harremanei Buruzkoa. Lurralde historikoen eskumenak.
5. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen. Xedapen orokorrak. Udalerria: kontzeptua, lurraldea, biztanleria, antolaketa eta eskumenak.
6. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen. Bestelako toki erakundeak. Toki-erakundeei buruzko xedapen komunak: funtzionamendu-araubidea, herritarren informazioa eta partaidetza.
7. gaia: 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki-erakundeen ondasunen araudia onesten duena: ondasunen kontzeptua eta sailkapena. Ondasunen inbentarioa eta erregistroa. Administrazioa. Ondasunen gozamina eta aprobetxamendua. Besterentzea.
8. gaia: 1955eko ekainaren 17ko dekretua, toki-korporazioen zerbitzuen araubidea onartzen duena. Administrazioaren esku-hartzea jarduera pribatuan. Toki-korporazioen zerbitzuak: xedapen orokorrak, partzuergoa, zerbitzuen zuzeneko kudeaketa (kontzeptua eta zuzenean kudeatzeko moduan) eta zerbitzuen zeharkako kudeaketa (zeharka kudeatzeko moduak eta emakida).
9. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Interesatua. Herritarren eskubideak. Ebazteko betebeharra. Administrazio-isiltasunaren arauketa. Baldintzak eta epeak. Administrazio-xedapenak. Administrazio-egintzen betekizunak. Egintzen eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.
10. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedura.
11. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-errekurtsoak: Xedea eta motak. Administrazio-bideak amaitzea. Gora jotzeko errekurtsioa. Aukerako berraztertze errekurtsioa. Berrikuspenezko errekurtsio berezia.
12. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Zehatzeko ahalmena: zehatzeko ahalmenaren printzipioak. Zehazpen-prozeduraren printzipioak.
13. gaia: 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa. Izapidetza.
14. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. 2. Titulua.
15. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoen Kontratuei buruzkoa. Kontratu eta adjudikazio-prozedura motak.
16. gaia: 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzkoa (abenduaren 15eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala): aurrekontu orokorren edukia eta aurrekontu orokorrak egin eta onestea.



17. gaia: 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzkoak. III., IV. eta V. Kapitulua.

18. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena, eta 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Herri-administrazioen zerbitzura dauden langile-motak eta funtzionario-izaera eskuratzeko eta galtzea. Administrazio-egoerak.

19. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena, eta 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eskubide eta betebeharrak. Diziplina-araubidea.

20. gaia: Herri-administrazioen erantzukizuna. 40/2015 Legea, Sektore publikoaren araubide juridikoa.

ATAL ESPEZIFIKOA

21. gaia: 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, eraikuntzaren antolamenduari buruzkoa: xedapen orokorrak eta eraikuntzaren eskakizun tekniko eta administratiboak.

22. gaia: Eraikuntzaren antolamenduari buruzko legea: eraikuntzaren eragileak. Erantzukizunak eta bermeak.

23. gaia: Historian zehar hiri hazkundearen forma. Egiturazko tipologia. Erreforma, eraldaketa eta hiri birgaitzea.

24. gaia: Hiri administratiboaren antolaketa. Erakunde nagusiak, autonomikoak eta tokikoak. Gaitasun. Hirigintzako beste erakunde batzuk.

25. gaia: Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, urritasuna duten pertsonen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testuategina onartzen duena. Guztientzako irisgarritasuna eta diseinu unibertsala.

26. gaia: Arautegi Araudia eta Irisgarritasun Arau Teknikoak udalerrietan. Kontzeptuak eta estrategiak. Espazio publikoa: 505/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, oinarrizko irisgarritasun baldintzak eta bereizkeriak eza eraikin eta espazio publiko urbanizatuaren sarbidea eta erabileran.

27. gaia: Errepide arloko eskuduntza. Estatuko eta autonomi legeria. Baimenen erregimen juridikoa. Eraikuntzaren eragina.

28. gaia: 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena: Uraren Euskal Agentziaren zereginak. 5, 7 eta 37. artikulua.

29. gaia: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Ministroaren 2017ko apirilaren 24ko Agindua, uraren bolumena kontrolatzeko sistemak Euskal Herriko barruko arroetan domeinu hidrauliko publikoaren erabilerari dagokionez arautzen duena. 1. kapitula.

30. gaia: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Ministroaren 2017ko apirilaren 24ko Agindua, uraren bolumena kontrolatzeko sistemak Euskal Herriko barruko arroetan domeinu hidrauliko publikoaren erabilerari dagokionez arautzen duena. 2. kapitula.

31. gaia: Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak eraikuntzan ezartzen dituena. Langileen eskubideak, proiektuen bisak, alde zuzeneko oharra, lan-agintariei informazioa. Proiektu bisadun obretan erabilgarri den erregimena.

32. gaia: Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak eraikuntzan ezartzen dituena. Eraikuntza edo ingeniari zibileko obren zerrenda ez zehatza, langileei segurtasun eta osasunerako arriskuak eragiten dituzten lan zerrenda ez zehatza. Obretan aplikatu beharreko gutxieneko osasun eta segurtasun xedapenak.

33. gaia: Laneko segurtasun eta osasunerako seinaleztapenari buruzko apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretua. Definizioak, enpresaburuaren betebeharrak, kontsulta eta langileen parte hartzea.



34. gaia: Laneko segurtasun eta osasunerako seinaleztapenari buruzko apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretua. Izaera orokorreko gutxieneko baldintzak, segurtasun koloreak, paperezko seinaleak, soinu eta argiko seinaleak, hitzezko komunikazioak, keinuak seinaleak eta seinaleekin lotutako gutxieneko xedapenak.

35. gaia: Udal Plangintza Orokorra. Plan orokorra. Plangintza osagarri eta araubideko arauak.

36. gaia: Hiri Garapeneko Programak.

37. gaia: Garapenaren plangintza: Plan partziala, Plan bereziak, Azterketa zehatzak. Urbanizazio Proiektuak.

38. gaia: Eraikuntzako Kode Teknikoa. (CTE/EKT). Xedapen orokorrak. Baldintza teknikoak eta administratiboak. Oinarrizko eskakizunak.

39. gaia: Hirigintza. Hiriko birpartzelazioa. Prozedura. Arauak. Efektuak.

40. gaia: CTE DB HR, Zarataren kontrako Babesa: Orokortasunak. Eskakizunen zehaztea eta zenbatzea.

41. gaia: CTE DB HR, Zarataren aurka Babesteko: diseinua eta dimentsioa. Eraikuntzako produktuak Eraikuntza. Mantentzea eta kontserbazioa.

42. gaia: CTE DB SI. Segurtasuna suteetan: Barruko hedapena; Kanpoko hedapena; Okupatzaileen ebakuazioa; Segurtasuna suaren kasuan: Suteen aurkako instalazioetan; Suhiltzaileen parte hartzea; egituraren suari erresistentzia.

43. gaia: Sustengu dokumentua Erabilera eta Irigarritasuneko segurtasuna DB SUA Oinarrizko Dokumentuari. DA DB-SUA / 2.

44. gaia: Lizentziaren menpe dauden egintzak. Lizentzien klaseak. Udal lizentzien esparrua eta edukia. Eskaerak eta dokumentazioa. Prozedura arau orokorrak. Udal txostenak. Aldibereko konpetentziak eta akats zuzengarriak. Ebazpena eta baldintzak. Eskumena duen organoa.

45. gaia: Obrak eraikitze lizentziak. Menpe dauden ekintzak. Eskaera eta dokumentazioa. Proiektu Teknikoa Tratamendua eta txostenak.

46. gaia: Jarduera kalifikatuak. Huts zuzengarriak. Aldaketak.

47. gaia: Zabaltze lizentziak. Menpe dauden ekintzak. Lizentzi. salbuespenak.

48. gaia: Funtzionamendua. Eskaera eta dokumentazioa. Huts zuzengarriak. Prozedura eta txostenak. Ebazpena eta epea.

49. gaia: Irekitzeko lizentziak igortzea. Iraungipena.

50. gaia: Jarduera Kalifikatuen Instalazio Baimenak. Menpe dauden ekintzak eta ez daudenak. Eskaera eta dokumentazioa.

51. gaia: Proiektu Teknikoa. Bideratzea. Beste erakunde batzuetako txostenak.

52. gaia: Proiektu Teknikoa. Huts zuzengarriak. Udal txosten teknikoak. Sailkapeneko organoari bidalketa. Ebazpena eta baldintzak.

53. gaia: Proiektu Teknikoa. Behin-behineko abiaraztea. Azken baimena eta etengabeko ikuskapena. Iraungipena.

54. gaia: Aldi baterako lanerako eta erabilerako lizentziak. Menpe dauden ekintzak. Behin-behineko justifikazioa. Eskaera eta dokumentazioa. Bideratzea. Ebazpena eta epeak. Eraispen eta baldintzen ziurtasunak.

55. gaia: 2/1999 Legea, martxoaren 17koa, Eraikuntzaren kalitatea lortzeko neurrikoa.

56. gaia: Auto-babeserako planak. Kontzeptua. Osatzen dituzten dokumentuak. Auto-babesaren oinarrizko araua: martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretua eta irailaren 5ko 1468/2008 Errege Dekretua.

57. gaia: Eraikinaren instalazio elektrikoak.

58. gaia: Eraikuntza egiteko material polimerikoak.

59. gaia: Lur merkatuan esku hartze publikoa. Lur ondare publikoak. Osatzen duten ondasunak, helmuga eta kudeaketa. Lur merkatuan esku hartzeko beste tresna batzuk.

60. gaia: Jabetza eta lur kudeaketaren funtzio soziala.



(Sarrerako zigilua / Sello de entrada)

**GORLIZKO UDALEAN ARKITEKTO TEKNIKO LANPOSTURAKO DEIALDIAN
PARTE HARTZEKO ESKAERA ORRIA
INSTANCIA SOLICITUD PARA LA PARTICIPACIÓN EN LA CONVOCATORIA
DE UN PUESTO DE ARQUITECTA/O TECNICA/O DEL AYUNTAMIENTO DE GORLIZ**

ESKATZAILEA / SOLICITANTE			
Izen-abizenak / Nombre y apellidos:		NAN / DNI:	
Jakinarazteko helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones:		PK / CP:	Herria / Población:
Lurraldea / Provincia:	Telefona / Teléfono:	2. telefona / 2.º teléfono:	E-posta / E-mail:
ORDEZKARIA / REPRESENTANTE			
Izen-abizenak / Nombre y apellidos:		NAN / DNI:	
Jakinarazteko helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones:		PK / CP:	Herria / Población:
Lurraldea / Provincia:	Telefona / Teléfono:	2. Telefona / 2.º teléfono:	E-posta / E-mail:
HIZKUNTZA / IDIOMA			
Oposizio faseko ariketak egiteko hizkuntza (euskara edo gaztelania): Idioma oficial (euskera o castellano) en el que se desea realizar los ejercicios de la fase de oposición:			
☐ Euskara ☐ Castellano			
Norberaren datuak babesteko abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betearazteko asmoz, jakinarazten deutsugu zure datuak udalaren informazio sisteman sartuko dirala udal kudeaketak egitearren. Fitxategi horren arduraduna Gorlizko Udala da, eta haren aurrean datuak ikusi, zuzendu, baliobakotu eta horreen kontra egiteko eskubideak erabili ahal izango dozuz. Horretarako Gorliz Udaleko HAZra jo beharko dozu eta berton NANA aurkeztu. Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que sus datos serán incluidos en el Sistema de Información Municipal con la finalidad de realizar gestiones municipales. El responsable de este fichero es el Ayuntamiento de Gorliz, ante quien Vd. Podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose para ello al SAC del Ayuntamiento de Gorliz donde deberá presentar el DNI.			

**ESKATZEN DUT / SOLICITO:**

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko probatan onartua izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela BAIEZTATZEN DU, eskatutakoan agiri original bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.

El abajo firmante SOLICITA ser admitido a las pruebas selectivas a la que se refiere la presente instancia y DECLARA que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en las Bases, comprometiéndose a acreditarlas fehacientemente en el momento en el que le sean requeridas.

AURKEZTEN DUT / PRESENTO:**Hautaketa-prozesuan parte hartzeko, dokumentazio hau aurkezten dut:**

- ☐ Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- ☐ Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen den titulazio akademikoaren fotokopia.
- ☐ Euskarako ziurtagirien edo tituluaren fotokopia, hala badagokio, euskara egiaztatzeko proba egitetik salbuetsi ahal izateko.
- ☐ Hirugarren oinarriaren e) eta f) idazpuruen betetzearen zinpeko deklarazioa.
- ☐ Lehiaketa-faserako alegatutako merizimenduen zerrenda, eta beraiek egiaztatzeko agirien fotokopia konpultsatuak.

Para participar en el proceso selectivo, presento la siguiente documentación:

- ☐ Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.
- ☐ Fotocopia de la titulación académica exigida para participar en el proceso selectivo.
- ☐ Declaración jurada del cumplimiento de los epígrafes e) y f) de la base tercera de la convocatoria.
- ☐ Fotocopia, en su caso, de certificados o títulos de euskara, al objeto de quedar exento de la realización de las pruebas de acreditación de euskara.
- ☐ Una relación de los méritos alegados para la fase de concurso, acompañando las fotocopias compulsadas de los documentos acreditativos de los mismos.

Norberaren datuak babesteko abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betearazteko asmoz, jakinarazten deusugu zure datuak udalaren informazio sisteman sartuko dirala udal kudeaketak egitearren. Fitxategi horren arduraduna Gorkizko Udala da, eta haren aurrean datuak ikusi, zuzendu, baliobakotu eta horreen kontra egiteko eskubideak erabili ahal izango dozuz. Horretarako Gorkiz Udaleko HAZra jo beharko dozu eta bertan NANA aurkeztu.

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que sus datos serán incluidos en el Sistema de Información Municipal con la finalidad de realizar gestiones municipales. El responsable de este fichero es el Ayuntamiento de Gorkiz, ante quien Vd. Podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose para ello al SAC del Ayuntamiento de Gorkiz donde deberá presentar el DNI.

**DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES**

☐ Hautagai honek bere datuak (izena eta abizena, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei lagatzea baimentzen du, horiek enplegu-eskaintzak egin ahal izateko.

☐ Este aspirante permite la cesión a otras entidades de las Administraciones Públicas de sus datos (nombre, DNI, domicilio, teléfono de contacto, nivel de formación) para que éstas puedan realizarles ofertas de empleo.

Desgaitasun agiria duten pertsonak / Personas con discapacidad legalmente reconocida:

Nahi izanez gero adieraz ezazu ondoren azterketak egiteko egokitzapenen bat edo denbora gehiago behar duzun. Si lo desea, señale si precisa alguna adaptación especial o tiempo adicional para realizar los exámenes.

Gorlizen, 2019ko(a)(r)(e)n ...(e)(a)n.

En Gorliz, a ... de de 2019.

Eskatzailearen sinadura / Firma del Solicitante

Norberaren datuak babesteko abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betearazteko asmoz, jakinarazten deusugu zure datuak udalaren informazio sisteman sartuko dirala udal kudeaketak egitearren. Fitxategi horren arduraduna Gorlizko Udala da, eta haren aurrean datuak ikusi, zuzendu, baliobakotu eta horreen kontra egiteko eskubideak erabili ahal izango dozuz. Horretarako Gorliz Udaleko HAZra jo beharko dozu eta bertan NANA aurkeztu.

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que sus datos serán incluidos en el Sistema de Información Municipal con la finalidad de realizar gestiones municipales. El responsable de este fichero es el Ayuntamiento de Gorliz, ante quien Vd. Podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose para ello al SAC del Ayuntamiento de Gorliz donde deberá presentar el DNI.